

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

JEZ ordaindu behar dutenen 2020ko errolda jendaurrean jartzea eta diru-bilketaren epea

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren 15. artikulua-rekin bat etorriz, iragartzen da jendaurrean jarriko dela 2020ko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren matrikula, honako toki hauetan:

Udal Eremuko Kuotak: Zigoitiko udaletxean, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.

Probintziako eta Estatuko Kuotak: Arabako Foru Aldundian.

Aztertzeko eta erreklamazioak egiteko epea hamabost egun baliiodunekoa da, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Iragarki honek betetzen du matrikulan sartutako likidazioak kolektiboki jakinarazteko eginkizuna, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 98.3 artikulua araberaren arabera.

Jendaurrean jarri den matrikulan jasotako likidazioen aurka, berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Alkatezari, borondatezko ordainketa-aldian eta hura amaitu eta hurrengo egunetik hilabete igaro arte.

Jardueren kalifikazio-egintzen aurka jartzen diren errekurtsuak eta erreklamazioak Arabako Zergen Foru Arau Orokorraren 229.etik 246.era bitarteko artikuluetan xedatutakoaren arabera arautuko dira, eta Arabako Foru Aldundia izango da berraztertzeko errekurtsua ebazteko organo eskuduna.

ORDAINTZEKO EPEA:

A) Borondatezko aldia: 2020ko azaroaren 1etik abenduaren 31ra.

B) Premiamendu-aldia: 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, eta premiamendu administrati-boko prozedura betearazlea hasiko da, kasuan kasu dagokion errekargua aplikatuta (Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 28. artikulua).

ORDAINTZEKO LEKUA ETA MODUA:

A) Banku-erakundeetan helbideratutako ordainketak:

Aurreko urteetan ordainketa helbideratuta zutenek ez dute inolako kudeaketarik egin beharko, bankuko helbideratze-kontua aldatu ez badute. Udala ordainketa izapidetzeaz arduratuko da.

B) helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa helbideratuta ez dutenek kreditu-txartelaren bidez ordaindu ahal izango dute udal bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara. Era berean, "Nire ordainketa" (www.zigoitia.eus) ordainketa-pasabidearen bidez ere ordaindu ahal izango dute, edo, bestela, Kutxabank eta Euskadiko Kutxa erakunde laguntzaileen bulegoetan ordainketa-agiria aurkeztuz.

Ondategin, 2020ko urriaren 9an

Alkatea

JAVIER GORBEÑA